

**KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU BATZORDEAREN OSOKO
BILERAREN URTARRILAREN 10EKO 1/2018 TXOSTENA****XEDEA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO
PUBLIKOAREN ARGITARATZE-JARDUERARI BURUZKO
DEKRETUAREN PROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK**

Apirilaren 7ko 67/1998 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitaratze-jarduera arautzen du, argitalpenon planifikazioa, antolaketa, ekimena, ekoizpena eta banaketari dagokionez.

Aldiz, arte grafikoen eta diseinu editorialaren arloan izandako bilakaera teknologikoak ezbaian jarri du euskarri editorialei eta euren online banaketari buruzko xedapenen indarraldia.

Horregatik, aztertzen ari garen dekretuaren proiektuaren zirriborroa egin da. Bada, jarraian, batzorde honek horren gaineko informazioa eskaintzen du.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK.**TXOSTENAK EGITEKO ESKUMENA.**

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua honakoa ezartzen du: «Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko dira».

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du erreferentziazko aruari dagokion proiektuaren gaineko txostena egiteko, izan ere, aipatutako arauak kontratazio publikoaren gaineko eragina du Euskal Autonomia



Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuko 27. artikuluko 1. apartatuko a) letran ezarritakoaren arabera.

Sektore publikoko erakundeak sortzea edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko erakundeetako egitura organiko eta funtzionalak arautzea helburu duen xedapen proiektu bat ez denez, 116/2016 Dekretuko 30. artikuluaaren arabera, honako txosten hau onartzeko eskumena Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak du.

III. – EDUKIA.

Dekretuaren proiektuak honako lau kapitulu hauek ditu:

- I. XEDAPEN OROKORRAK.
- II. ANTOLAMENDUA ETA EGINKIZUNAK.
- III. ARGITARATZE-JARDUERA.
 1. ATALA.- ARGITALPEN-EKIMENA.
 2. ATALA.- ARGITALPENEN EKOIZPENA.
 3. ATALA.- ARGITALPENEN MERKATURATZEA.
 4. ATALA.- ARGITALPENEN ESPURGOA.
- IV. BESTE XEDAPEN BATZUK.

Eta xedapen indargabetzaile batekin eta bi azken xedapenekin osatzen da.

IV.- GOGETA JURIDIKOAK.

Dekretuaren proiektuko artikuluen artean, honako txosten honek azertu behar dituen auziei dagokionez, 8., 13. eta 23. artikuluetan jasotako kontratazioari buruzko erreferentziak nabarmentzen dira.

Baliabide orokorren arloan eskumena duen Zuzendaritzaren Argitalpenen Zerbitzu Nagusiaren funtzioei buruzko 8. artikulua, honako funtzio hau jasotzen du:

«f) Sailek, eta, hala dagokionean, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek sustatuko argitalpenen ekoizpen-lanak burutzea, eta argitalpen

horiek banatzea, xedapen honetan ezarritako moduan. Horretarako, beharrezko kontratazio espedienteak tramitatuko dira, originalak hartzen direnetik argitalpena herritarren eskuetara heltzen dena arte lan guztiak modu zuzen eta egokian egin daitezzen».

Administrazioaren eskubideen gaineko 13. artikulua, honako hau jasotzen du:

«1. Argitalpena bultzatzen duten Administrazio Orokorraren sailek, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek babestu behar dituzte administrazioak edo dagokion erakundeak argitalpenon gainean dituen eskubideak. Horretarako, egile, argitalpen, itzulpen eta jabego intelektualari dagozkion beste edozein kontratu-mota sinatzea eta erregistratzea bultzatuko dute horrela dagokionean, betiere arlo horretan eskumena daukan organoarekin elkarlanean.

2. Argitalpena bultzatzen duten Administrazio Orokorraren sailek, erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, aurreko paragrafoan aipatzen diren kontratuen edo erregistro-ziurtagirien kopiak eman beharko dizkiote Argitalpen Zerbitzu Nagusiari honek horrela eskatzen duenean.

Argitalpen Zerbitzu Nagusiak editatutako argitalpenak kopiatzeko eskubidea administrazioarena edo dagokion erakundearena da, hori bai, honek, dagokion sail edo erakunde sustatzaileen bitartez, lanok Creative Commons lizentziapean edo etorkizunean izan daitezkeen beste batzuen pean zabaltzeko aukera izango du».

Azkenik, 23. artikulua, honako hau dio:

«23. artikulua. Argitalpenen banaketa

Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagokio bere argitalpenen banaketa, eta, horretarako, dagokion kontratuak izenpetuko ditu».

Gobernu Kontseiluak 2014ko apirilaren 29an zerbitzuen kontratazioko jardunbide egokien gainean onartutako jarraibideek, honako jarduera printzipio hauek biltzen dituzte:

«[...]

b) Ahal izanez gero, baliabide propioak erabiltzea: zerbitzuak emateko dauzkaten giza baliabideak eta elementu teknikoak. Giza baliabideen gabezia eta langile kopurua handitu ahal ez izatea ez dira, bere horretan, kontratazio beharra justifikatzeko argudio bat izango.



Justifikatuta dauden kasuetan, eginkizunak beste norbaiti esleitu ahal izango zaizkio.

c) Ohiko beharrak eta behar iraunkorrak ez kanporatu; berezko langileekin erantzun beharko zaie, seigarren jarraibidean aurreikusitako kasuetan izan ezik.

[...]»

Aipatutako Seigarren Jarraibideak ("Kontratatu daitezkeen zerbitzuak"), zerbitzuon artean jasotzen ditu inprimatze eta ediziokoak. Aldiz, aipatu berri ditugun jarduera printzipioak kontuan izanik, ez da egokia kontratazio espedienteak izapidetzeko beharra era hertsian hartzea, baizik eta aukera bezala hartu behar da, betiere, gainera, baliabide propioak, bai pertsonalak bai/eta materialak, administrazioaren beharrei erantzuteko nahikoak ez diren kasuetarako.

Horregatik, honako aldaketa hauek egitea proposatzen da: aipatutako 8. artikuluko f) letrako "tramitatuko dira" hitzak "tramitatu ahal izango dira baliabide propioak nahikoa ez direnean" hitzengatik ordezkatzeari; eta 23. artikuluko "izenpetuko ditu" hitzak "izenpetu ahal izango ditu, betiere behin baliabide propioen gaitasuna gainditzeko" hitzengatik ordezkatzeari.

13. artikuluan jasotako administrazioaren eskubideei dagokionez, jabego intelektualari dagozkion kontratuak sinatu eta erregistratzearekin lotuta, honako hau zehaztea komeniko litzateke: 1. apartatuan jasotako "arlo horretan eskumena daukan organoa", ondarearekin lotutako zereginak bere gain hartuko dituen administrazio honetako organoa dela eta ez beste inor.

Bestalde, Dekretuan azken xedapen bat sartzea ere proposatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuko 15. artikuluko 2. apartatuta aldatzeko. Behin aldaketa eginda, horrela geratuko litzateke:

«2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren argitaratze-jarduerari buruzko Dekretua».

Aipatutakoa azken Lehen Azken Xedapena izatea proposatzen da, eta, horrenbestez, aurretik zeudenak Bigarrena eta Hirugarrena izatea hurrenez hurren, eta horrela jasotzea indarrean sartuko den testu berrian.



Amaitzeko, kontratazio publikoaren arlotik kanpoko zehaztapenak badira ere, batzorde honek uste du txostenean Dekretuaren Proiektuaren testuaren egokitzapenaren gaineko honako proposamenak ere jaso behar direla:

- Lehen orrialdeko laugarren paragrafoko hirugarren lerroan, «Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagokio» dioen lekuan, «Argitalpen Zerbitzu Nagusiari dagozkio» esan behar du.
- 2.2 in fine artikuluan, «dekretu honetako hirugarren atala» dioen lekuan, «dekretu honetako III. kapituluko hirugarren atala» esan behar du.
- 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan jasotako Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeari aipamenak ezabatu egin behar dira, izan ere, martxoaren 22ko 38/2011 Dekretuak bertan behera utzi zuen (2011ko martxoaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 59. zenbakia). Era berean, aipatu Dekretuak bertan behera utzi zuen Batzordea sortu zuen azaroaren 29ko 396/2005 Dekretua bere ere, aztertzen ari garen Proiektuaren 5. artikuluan aipatzen dena.

V.- ONDORIOAK.

Lehenik eta behin, argi utzi behar da kontratazio espedientean izapidetzea, eta horrela dagokionean horien ondoriozko kontratuen hitzartzea, administrazioaren ahalmen bat dela soilik, eta inolaz ere ez obligazio bat. Horregatik, ahalmen hori administrazioak dituen baliabideak, bai giza baliabideak bai materialak, sortutako beharrei erantzuteko nahikoak ez diren kasuetan soil-soilik baliatu behar da.

Ildo horretan, derrigortasunaz hitz egiten duten terminoak aukera guztiak kontuan hartzen dituzten beste batzuegatik ordezkatu behar dira, administrazioak bere baliabideak ahalik eta eraginkortasun handienaz erabil ditzan helburu.

Bestalde, administrazioaren jabetza intelektualeko eskubideen zaintza, ondare arloko eskumena duen erakunde edo unitatearekin koordinatuta gauzatu behar da.

Kudeaketa bateraturako eskumena organo zehatzei ematen dieten disposizioen artean, argitalpenak arautzen dituen aurreko Dekretu arautzailea orain proiektatzen ari denagatik ordezkatu behar da.



Azkenik, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeari egindako aipamenak ezabatu egin behar dira, Batzorde hori ez baita existitzen berau bertan behera utzi zuen martxoaren 22ko 38/2011 Dekretua indarrean sartu zenetik.

Behin aurreko guztia esanda, Dekretuaren Proiektuaren aldeko txostena egiten da.